

2023ko apirilaren 30ean, Bokazinoen aldeko Munduko Otoitz Eguna eta Sorterriko Bokazinoen Eguna ospatuko dala-eta, hainbat eremu atondu dogu, alde batetik, gure Eleizan dagozan askotariko bokazinoak agertzera emoteko eta, bestetik, uste sendo honetan berresteko: bokazino aniztasunean, alkarri autorpena egin eta alkarregaz bide egitea (sinodo-sena) izateaz gainera, *Christus Vivit* idazkian adierazotako Gazteen Sinodoaren sena berreskuratzea dala.

“Egia da “bokazinoa” berba, adiera zabalean, Jainkoaren dei lez ulertu daitekena. Dei hori, bizitzarako dei, Beragazko adiskidetasunerako dei, santutasunerako dei... izan daiteke. Hau, balio handikoa da gure bizitza osoa maite gaituen eta ezer ez dala zentzun bako kaosaren emaitza eta dana guretzat egitasmo bikaina dauan Jaunari erantzuteko bidean txertatu daitekela ulertarazoten deuskun Jainkoari begira jarten dau-eta.

Zehatzago, IV. EEEn, “Alkartea” 4. erronkan, 4.2 jardunbidean, zera proposatu dogu: *Bokazino pastoralta sendoa hedatu biziera sekular, kontsakratu eta ministerialerako berariazko garapenakaz. Berariazko egitasmoaren garapenean konprometitutako norbanako eta taldeak identifikatuz eta askotariko bokazinoen (biziera sagaratua, abade, diakono eta laiko biziera) alkartzerako eremuak zabalduz.*

Eleizbarrutiko Seminarioak, Diakonotzarako Batzordeak, Eleizbarrutietako Misinoen Ordezkaritzak, Laikotzarako Idazkaritzak, Eleizbarrutiko Teologia eta Pastoralta Institutuak eta Fede-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritzak (Bokazino Pastoralta) hiru eremu prestatu doguz, bokazinoak sustatzeko eta euren ekarpena agertzera emoteko ardurari bizirik eusteko borondateagaz:

1. **Tailerra**, gazteen pastoraltzako arduradunentzat, Eleizbarrutiko ikastetxeetako pastoral arduradunentzat, erlejinoko irakasleentzat, Kristau Eskolakoentzat eta pastoral moderatzaileentzat, Carlos Gomez-Virseda jesuita eta mediku gazteak gidatuta. **Apirilaren 25ean, martitzenez, 15:00etatik 17:00etara, Barria eraikinean.** Ezinbestekoa da aurretik izena emotea (pastoralvocacional@bizkeliza.org) lancha egongo dalako.

2. **Jarduera bi, gura daben guztientzat:**

- **Berbaldia: “Bokazino pastoraltzaren erronka eta aukerak”,** Carlos Gomez-Virsedaren eskutik, **apirilaren 25ean, martitzenez, 19:00etatik 20:30etara, Begoñako Gogarte Etxeko areto nagusian.**
- Bokazino **esperientzia/lekukotasunen** mahaia, **apirilaren 27an, eguenez, 19:00etatik 20:30etara, Begoñako Gogarte Etxeko areto nagusian.**

Beste barik, jaso egizue gure deia honako jardueraren baten parte hartzeko. Laster alkar ikusiko dogulakoan,

Agur bero bat.